



### 13 ■ Hegazti gripearen beldurrik gabe

Gasteiztarrek ohiko txangoak egin dituzte Salburuako hezegunean, hegazti gripearen beldur handirik gabe.



### 15 ■ Ramos Horta, lehen ministro

Ekialdeko Timorreko presidentek lehen ministro izendatu du Ramos Horta Bakearen Nobel sariduna.



prefeta, atzoko aurkezpenean. ELODIE DAGUERRE

### Lurraldetasunaren lehiakortasuna indartu

Zerbitzuetan oinarritu toki garapeneko ekonomia gaina hartzen ari dela oharturik, ekonomia produktiboa sendotzeko beharra nabarmentzen du egitasmoak, hainbat sektore cluster moduan antolatuz. Hau da, enpresak sektoreka eta zonaldeka antolatzea ekoizpen gune espezializatuak sortzeko, lehiakortasuna irabazteko. Izan dadin laborantzan, arrantzan, hegazkingintzan, eraikuntzan, turismoan, lerra kiroletan eta beste. Goi mailako irakaskuntzari dagokionez, ikerkuntza eta leku enpresak elkartzera aipatzen du. Iparraldeak berezko unibertsitate baten beharra luzaz eztabaidatu dela, hautsi-mautsi bat lortu da. Sail horretan EEPren gisako egitura berezi bat sortzea aipatzen da. Baiona, Bidarte, Paue eta Bordeleko ikastetxeen artean sare bat osatzu partaidetza bat bultzatzea ere gomendatua da. Hego Euskal Herriko ikastetxeak ere gomitatzeak dituzte lan horretan.

### Kohesio soziala eta herritarren ongizatea segurtatu

Egitasmoa aitzaki, osagarriaren sektoreko eskaintzaren azterketa sakon bat egin dute lehen aldiz. Barnealdean larrialdi sendaketa mailan eskas handiak nabarmentzen ditu honek. Ondorioz, barnealdeko erietxeak zutik eta indartsu atxiki behar dira relata eskatzen du horretan aritu den lan taldeak. Horretaz gain, prekarietateari baita ahalmen urrikoei arazoei aurre egiteko zer proposatzen den ikertua izan da. Alde horietatik anitzez indar gehiago egin behar dela azpimarratu du.

### 'Euskal Herria' kapital-balio bezala baloratu eta transmititu

Euskal Herriaren ondare kulturala abantaila bezala aurkezten du egitasmoak, izan dadin bere ingurumen paregabea edota hizkuntza. Ondare hori baloratu beharra azpimarratzen du, justuki, kohesio soziala baita lurraldearen lehiakortasuna eta erakargarritasuna bermatzeko. Besteak beste, Euskal Herriaren irudian oinarritu kontsumorako marka bakar bat sortzeko ideia aitzinatzen du. Euskal kulturari dagokionez, bere lekua eta zeregina berretsi behar dela dio, publiko berriengana joanez. Euskararen geroa segurtatzeko ambiziozko hizkuntza politika segitu behar dela agertzen da baita ere. Ingurumenari buruz, euskal mendiaren garapen iraunkorri buruzko karta izenpetzea aurreratzen du. Uraren kalitatearen arazoa ere agertzen da egitasmoan.

### Ekologiaz arduratzen den praktiketara bultzatu aktore ezberdinak

Izan dadin garraioaren aldetik zein etxebizitza mailan, indar berriztagarriak garatzea hobesten du txostenak. Hala nola, garraio publikoei buruzko politika kaskarra salatzaren duen. Eskaintza urriaz gain, herritarrei buruz prebentzio kanpainak egin beharra azpimarratzen du. Hirigintza ere kontsumoa murrizteko ikuspegitik pentsatu behar dela nabarmendu du.

# «Mami gabeko gorputz bilakatuko da herri hau, edukia landu ezean»

**BEÑAT DARRETXE** Garapen Kontseiluko lehendakaria

Instituzio eskasaren problema ez dela konpondua onartu arren, bien bitartean eramaten ari diren proiektu gogoeta hori saihestezina dela deritzo.

**N. A.**

Baiona

2007ko urte hasieran uztekoa du bere kargua Darretxek, sei urtez Garapen Kontseiluko lehendakari izan ondoren. Aldaketa, egituraz balorazio berri bat egiteko baliatzea ongi legokeela deritzo, jakinez 1994an sortua dela Garapen Kontseilua. Hausnartzeko Euskal Herria 2020 gauatzeko egitura eraginkorrena zein izan daitekeen.

### Euskal Herria 2020 nola aurkeztuko zenuke 2010 proiektuari begira? Zein dira ezberdintasun handienak?

2010 proiektua gauzatzen hasi zelarik kasik dena egitekoa zen. Garaian dosierak osatzeko aditu guztiak kanpotik heldu ziren. Gaur egun, ordea, ikerketak hemen berean egiteko ahal guztiak baditugu. Hamar urtez behar diren gaitasun eta egiturak martxan jartzen jakin izan dugu. Horrez gain, 2010 proiektuarekin espazioaren egokitzeaz ginen bereziki arduratu eta ez hainbeste edukiaz. Orain, hutsune hori betetzen entseatu gara. Zer garapen mota nahi dugun Euskal Herriarentzat? Hara zein galderari erantzun nahi izan diogun. Haatik, azpimarratzekoa da bi proiektuetan gizarte zibilaren parte-hartzea biziki handia izan dela. 500 jende anitz da! **Ondoko hilabeteetan finantzaketak aurkitzea, negoziatzea izan da eramanen den lana, ezta?**

Guk urte bukaeran lortu nahi duguna da Euskal Herriarekiko kontratu orokor bat, Hitzarmen Bereziaren gisako bat. Euskal Herria 2020tik jalgi proiektu guztiak elkartuko dituen. Hortik, ikusiko da nola egokitzen den diru laguntza ezberdinei.

**Hortaz, nahiz eta proiektuak interesgarriak izan, edozein gisaz, azken erabakia diru dutenek dute, eta horiek ez dira hemen...**

Ez da beti dena diruaren ikuspuntutik begiratu behar. Proiektu berri honetan ardura ekologikoaz



BOB EDME

proposamenak egiten dira adibidez. Dirua baino gehiago kontzientzia hartze batean oinarritzen diren proposamenak. Jakinez, gainera, diru publikoa gero eta arraroagoa bilakatuko dela, irudimen gehiago erabiltzea behartuak gara metodologia aldetik. Eta erabakitze eskubideaz ari zarela, azpimarratu nahi dut azken hamar urte hauetan Garapen Kontseiluak egin proposamenak onartuak izan direla %90ean. Ideia bat ona eta landua bada, begi bistakoa da gauzatuko dela. Nik sinesten dut ideien indarrean.

**Bizkitartean Frantziak segitzen du Ipar Euskal Herriaren ezagupenari uko egiten... Alta, galdera hori ere bada begi bistakoa, ez?**

Ezagupenaren arazoak beti horizaten segitzen du. Eta ez da konpondua. Eta segur da geroan ere aldarrikapen horiek segitu behar dutela, dela Euskal Herriko Laborantza Ganbera edo beste. Baina horiek denak politikaren eremuan dira sartzen. Alderdi politiko eta hautetsiei da horren bultzatzea.

**Batzuek diote arazo global horri**

**«Proiektua gauatzeko biziki handia izan da gizarte zibilaren parte-hartzea, 500 jende anitz da!»**

**«Unibertsitate mailan, sare batean sartu behar dugu puntakoa eta berezia den eskaintza batekin»**

**sektoreka erantzunez indargabetu nahi duzuela, nonbait herritarrek lokartu nahian, zuk zer deritzozu horretaz?**

Nire ustez bi gauza horiek arrunt independenteak dira. Kasu egin behar dugu. Proiektu gogoeta hori ez badugu eramaten, ez badugu edukia lantzen, jakinez ezagupena azpiegitura problematika bat dela, Euskal Herria mamirik gabeko gorputza bilakatuko da. Eta hor berdin dio ezagupena ukan ala ez. Nire kezka nagusia da Euskal Herria biziaraztea praktikan. Instituzioak hori guztia baieztatzea bai zik ez datoz. Bixkotxaren gaineko gerezia dira. Baina praktikan, gure gazteak kanpora baldin badoaz lanik ez delako, sortzen ez dakien herri bat bihurtzen bagara... Nahitara exajeratuko dut: nik ez dut Euskal Herri independente batean bizi nahi ez baldin badu deus barnean. Egitasmo honekin eduki bat ematen diogu guztiari. Demagun instituzio bat lortzen dugula, egiten ari garen lan hori egin beharrekoa izanen da halere. Ni ere ezagupen baten alde naiz, baina ezin da erran hori gabe ezin dela deus egin. Herri hau anitz aitzinarazi dugu, nahiz eta egia izan gauza anitz oraino badela egiteko. Horregatik dugu 2020 egitasmoa sortu, justuki.

**Unibertsitatearen gaia jorratzen duzue 2020 egitasmoan, baina ez da berezko unibertsitatearen eskaerarik egiten, zer diozu hortaz?**

Ez dut uste unibertsitate autonomo bat soluzioa denik. Egia da due la 10 urte eskaera hori egiten zela, baina 260.000 biztanle dituen eskualde batean horrek ez du zentzurik, hasteko, gure helburua kalitate mailakoa bada. Nik eta beste batzuk pentsatzen dugu sare batean integratua den unibertsitate bat dela eraginkorrena. Gure zorrotzutasuna eskaintzari begira jarri behar dugu. Puntakoa eta berezia den eskaintza bat behar dugu hemen. Hirugarren zikloko ikasketak, horiek baitira emankorrenak garapenerako. Demagun Bidarteko ingeniari eskola. Existitzen bada, Bordele, Londres eta Bilborekin loturak dituelako da. Modeloa hori da. Bistan dena horrek suposatzen duela kudeaketa autonomo bat. Baina ez du zertan juridikoki autonomia izan. Ez du balio debaldeko lehiakortasunetan indarra xahutzea.

### AteLierretatik atera Lana



### Bost desafio

Euskal Herria 2020 proiektuak bost desafio nagusi zehaztu ditu. Desafio bakoitza joan zen irailtik abiatu atelierretan proposatu norabideetatik jalgitzen da. Baina dena dela, desafio hauek oraino gogoeta soilak baizik ez dira. Orain proiektu zehatz bat marraztu behar da, finantzaketari begira.

### Erakargarritasuna menperatu eta kudeatu

Gaurko egunean Ipar Euskal Herria 280.000 herritar bizi badira, Hirigintza Agentziak aitzinatua hipotesien arabera 2020an 310.000 biztanle dira izanen, jakinez jende berri hori kanpotik etorriek osatuko dutela gehiengo handian. Hori kontuan harturik, etxebizitza zein garraioen kudeaketa hobea gomendatu du lan taldeak. Ipar Euskal Herri osoa kontuan hartzen duen garraio plangintza bat abian jartzea gomendatzen dute. Proposamenen artean Baiona eta Donibane Garaziko trenbidearen ahalak indartzea agertzen da. Baxenabarre zeharkatzekoa zuen 2x2 proiektuaren ordez, mugaz gaindiko harremanak indartzea proposatzen dute, baina jario handiko biderik egin gabe.